



# BERDINTASUNERAKO BARNE PLANA

BERARIAZKO HELBURUAK ETA NEURRIAK ESKU-HARTZEKO ARDATZEN ARABERA



# AURKIBIDEA

1 -Sarrera

2- Azalpena

3- Erreferenteak eta lege esparrua

4- Lan-prozesuak

5- Printzipio orientatzaileak

6-Egitura



# SARRERA

1 - **4/2005 Legeak** —1/2022 legeak aldatuak— xede du emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan herri-aginteen jarduna zuzendu behar duten printzipio orokorrak ezartzea, bai eta zenbait neurri arautzea ere bizitzaren arlo guztietan emakumeek eta gizonek aukera eta tratu berdinak izan ditzaten sustatzeko eta bermatzeko.

2 - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako **ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak** ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiak emakumeen eta gizonen berdintasunerako foru-plan bat onartuko duela.



# SARRERA

3 - Hala, bada, Bizkaiko Foru Aldundiaren erabaki bidez, Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen **Berdintasunerako VI. Foru Plana** onartzen da. Plan horrek honako hauek jasotzen ditu:

2. programan («Genero perspektibaren txertaketa langileen kudeaketan»), 2.1 helburua: Genero-ikuspegia txertatu Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren Sektore Publikoaren langileen kudeaketan.

4 - Lehenengo neurria honako hau da: Bizkaiko Foru Aldundiaren Berdintasun Planean aurrera egiten jarraitzea, [...] Bizkaiko Foru Aldundiaren Barne Berdintasunerako Plana osatuz, FFKZren mende, Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzaren lankidetzarekin, indarrean dagoen araudi autonomikoa eta estatukoa betez.



# AZALPENA

4/2005 Legea - 1/2022 Legeak aldatua- aplikatzearen ondoriozko berdintasun-politikek emakumeen eta herritarren alde egin dute, oro har, berdintasuna giza eskubideen kontua delako eta herrien gobernu onerako eta garapen sozial eta ekonomikorako funtsezko elementua delako.

Egia da aurrerapena egin dela, baina bide luzea dago egiteko benetako berdintasuna lortu arte.

Hortik dator berdintasun-planak egiteko betebeharra ( 15 eta 4/2018 Foru Araua). Horregatik, administrazio publikoen eremuan, bai Enplegatu Publikoaren Dinarrizko Estatutuak - 7. xedapen gehigarria, Euskal Enplegu Publikoaren Lege berriak ( 15. Xed. Geh.) Administrazio bakoitzak plana egiteko duen betebeharra jasotzen dute.

Hori betetzeko, VI. Foru Planak betebehara hori jasotzen du, eta 2022an zehar prozesu bat garatu da, ordezkariak sindikalarekin negoziatua, horretarako beren-berregi sortutako zeharkako batzorde batekin. Batzorde horrek 8 ardatzen bidez egituratu du plangintza. Ardatz horiek emakume baten bizitza ordezkatzeko dute, sarbide-prozedura batean parte hartuz eta bere foru-garapenean eragina izan dezaketean arlo guztietan lan eginez.

Ardatz horiei helburu orokor bat eta helburua lortzeko ekin beharreko neurriak (edo ekintzak) lotzen zaizkie, azken batean helburu hori erakundearen barruan benetako berdintasuna lortzea delako.



# ERRREFERENTEAK ETA LEGE ESPARRUA

## FORU ESPARRUA

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2018 Foru Araua.
- 17/2020 Foru Dekretua Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua.
- 127/2020 Foru Dekretua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde Sarea.
- Bizkaia Irekia, Gobernu Irekiko Estrategia.
- Bizkaia Egiten 2019-2023.

*\* BERDINTASUNERAKO BARNE PLANA*

## AUTONOMIA ESPARRUA

- 4/2005 Legea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.
- EAEko Berdintasun Politika Publikoen kalitate-estandarrik, Emakunde.

## ESATU ESPARRUA

- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarritakoa.
- Genero Indarkeriaren Aurkako Estatu Ituna

## EUROPAR ESPARRUA

- Genero Berdintasunerako EBren Estrategia 2020-2025.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzioari eta borrokarri buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbulgo Hitzarmena).

## NAZIOARTEKO ESPARRUA

- Garapen Iraunkorretarako 2030. Agenda (2015).
- Pekin + 20: Pekingo Ekintza Plataforma (2015).

## EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VI. FORU PLANERAKO ERREFERENTEAK

## BERDINTASUNEKO BARNE PLANAREN ERREFERENTEAK



# LAN-PROZESUAK

Barne-gogoeta Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren  
Zuzendaritza Nagusian



Sailen arteko bilerak



BFAren eta erakunde autonomoen negoziatio-mahaiaren bilera




Planaren batzordea sortzea



Lan-bilerak



Berdintasunerako Barne Planaren proposamena



# PRINTZIPIO ORIENTATZAILEAK



# Egitura

- 1. ARDATZA.- GOBERNANTZA
- 2. ARDATZA.- INDARKERIA
- 3. ARDATZA.- SARBIDEA
- 4. ARDATZA.- HORNIDURA ETA KARRERA
- 5. ARDATZA.- LANEKO PREBENTZIOA ETA OSASUNA
- 6. ARDATZA.- INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK
- 7. ARDATZA.- KONTZILIAZIOA
- 8. ARDATZA.- ERANTZUKIDETASUNA



# 1. ARDATZA.- GOBERNANTZA

## 1) HELBURU OROKORRA

Berdintasunezko erakundea sortzea, non eskubideak eta betebeharrak berdinak izango diren gizonentzat eta emakumeentzat, eta hori eragozten duten oztopoak kentzea.



## 2) BERARIAZKO HELBURUAK

1. berdintasunezko antolaketa sortzea.
2. Antolamendu-erantzukidetasuna.
3. Sexuaren arabera eskubideetan eta betebeharretan aldeak sortzen dituzten diskriminazioen oinarriak ezabatzea.
4. Bi sexuen lan-premien asebetetasun ekitatiboa.



## 3) NEURRIAK

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren egiturak, kudeatzeko moduak eta koordinazioa berrikustea.
2. Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista eta rolak eta estereotipoak gainditzea.
3. Politikarien eta zuzendarien berdintasunaren arloko prestakuntza.
4. Partaidetzako eta ordezkartzako kide anitzeko organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzea
5. 5. ATARILEKUN gune bat gaitzea langile guztiek Berdintasunerako Barne Planaren inguruko iradokizunak egin ditzaten.

## 3) NEURRIAK

6. Aldundiko kide anitzeko organo egonkorren bileren ohiko ordutegia aztertzea
7. Harrera-eskuliburuetan sexu-jazarpenik edo sexuan oinarritutako jazarpenik gertatuz gero prebenitzeko eta jarduteko protokoloen edukiari buruzko atala sartzea, emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzeko eta haren aurka jarduteko neurriak azalduz.
8. Lanpostuen eta plazen izenak hizkuntzari dagokionez berdintasunezko irizpideak kontuan hartuz berrikustea eta genero-joerak ezabatzea.
9. Burutuko diren inkestetan, estatistiketan, azterlanetan eta datu-bilketetan sexuaren aldagaia kontuan hartzea, desberdintasunei buruzko ezagutza hobetzea ahalbidetuko duten adierazleak aplikatuz.

## 2. ARDATZA.- INDARKERIA

### 1) HELBURU OROKORRA

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egitea, horrelako kasuetan detekzio goiztiarrean eta babes integralean lan eginez.



### 2) BERARIAZKO HELBURUAK

1. Instituzioan indarkeria matxistako kasuak ezabatzea eta emakumeenganako indarkeria matxistaren aurkako kontzientziazioa egitea.
2. Emakumeenganako indarkeria matxistaren aurkako prebentzio goiztiarra egitea eta neurriak hartzea.
3. Indarkeria matxista mota guztien irismenari eta eraginari buruzko sentiberatasuna eta informazioa.
4. Emakumeenganako indarkeria matxistaren aurrean inplikazioa sustatzea.

### 3) NEURRIAK

1. Genero-indarkeriaren aurkako babesarekin zerikusia duten neurriak premiaz eta lehentasunez gauzatu behar direla sustatzea, haien eraginkortasuna bermatuko duten prozedura bereziki arinen bidez.
2. Lan Arriskuen Prebentziorako eta Lan Osasunerako Zerbitzuko langileak garaiz detektatzeko prestakuntza espezializatua.
3. Langileei jakinaraztea zer eskubide dituzten emakumezko langileek indarkeria matxistari aurre egiten dioten kasuetan, eta komunikazio-kanala ezartzea Atarilekun prestatutako postontziaren bidez.
4. Laneko arriskuen prebentzioari buruzko derrigorrezko prestakuntzan indarkeria matxistari buruzkoa sartzea eta, bereziki, lan-eremuko indarkeria horri buruzkoa.

### 3) NEURRIAK

5. Jazarpenari buruzko protokoloa berrikustea eta prebentzio-neurriak eta jarduteko neurriak hartzea.
6. Jarduteko gida bat, kanpainaren xehetasunak eta indarkeria-kasuetan jarraitu beharreko prozeduraren azalpena jartzea Atarilekun.
7. Genero-indarkeriarekin lotutako prozedurak berrikustea, eragindako emakumeei konfidentzialtasuna bermatzeko haien karrera profesional osoan zehar.
8. Genero-indarkeria dela-eta lantokia edo lanpostua aldatu behar izana ekarri duen egoerak dirauen bitartean lanpostua edo lantokia erreserbatzeko eskubidea bermatzeko arauak ezartzea.



## 3. ARDATZA.- SARBIDEA

### 1) HELBURU OROKORRA

Hautaketa-prozesuetan genero-berdintasuna bermatzea.



## 2) BERARIAZKO HELBURUAK

1. Hautaketa-prozesuetan genero-berdintasunaren printzipioa betetzen dela bermatzea eta sustatzea.
2. Enplegu publikoaren plangintzak genero-ikuspegia barne hartzea.



### 3) NEURRIAK

1. Emakumeek lanpostu guztiak eta sailkapen-maila guztiak eskura edukitzea sustatzea, segregazio horizontala eta bertikala desagerrarazteko bidean aurrera egiteko.
2. Estatistika egokiak eta eguneratuak egitea ordezkaritza % 40tik beherakoa duten administrazioaren kidego, eskala, maila eta kategorietan detekzioa egitea ahalbidetuko dutenak, eta erreferentzia-eremua zehazteko irizpideak ezartzea % 40 hori kalkulatzeko.
3. Klausula bat ezartzea, baldin eta gaikuntza-berdintasuna badago % 40 baino gutxiagoko ordezkaritza duten administrazioaren kidego, eskala, maila eta kategorietan emakumeei lehentasuna ematen diena, beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituztenean izan ezik eta, ezaugarri horiek, sexuagatiko diskriminatzaileak ez direnean eta neurri hau ez aplikatzea justifikatzen dutenean, esaterako enplegua lortzeko eta lanpostuz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

### 3. ARDATZA.- SARBIDEA

4. Genero-eraginari buruzko txostenak egitea hautaketa-proba guztietan, emaitzak sistematikoki berrikustea eta, genero-inpaktu negatiboa hautemanaz gero, dagozkion neurriak ezartzea.

5. Aurreikuspenak ezartzea merezimenduen baremoetan lanbide-esperientziaren ondorioetarako hautagaiak senitartekoak zaintzeko edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia-egoeran egon diren denbora balioesteko, amatasuna eta aitatasuna babestea helburu duten lanaldi-murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora, edo norberaren, familiaren eta lanaren kontziliazio erantzukidea errazteko denbora, bai eta emakumezko langile publikoek genero-indarkeriagatiko baimenetan baliatu duten denbora ere.

6. Deialdi bakarreko sistemaren araberrako ariketak edo probak egiten diren prozesuetan, edo hautagaiak bertan egotea eskatzen duten beste jarduera batzuk egiten diren prozesuetan, kontuan hartzea behar bezala egiaztatuta dauden haurdunaldiak, erditzeak edo edoskitzeak ekitaldia egiteko lekuaren edo denboraren inguruabarrak aldatzea justifikatzen duten kausak izan daitezkeela.

### 3. ARDATZA.- SARBIDEA

7. Genero-ikuspegia txertatzea deialdi jakin batzuetan eskatzen diren proben diseinuan (bereziki, proba fisikoetan), proba horiek berregokitzeko diskriminaziorik ezaren printzipioa lortzeko helburuarekin.
8. Behar bezala egiaztatutako egoeren kasuan egokitzapen materialak behar direnean eta egokitzapen horiek Langileen Aukeraketarako eta Trebakuntzarako Zerbitzuari jakinarazi bazaizkio, zerbitzu horrek neurri egokiak hartzea.
9. Emakumeek ordezkaritza txikia duten lanbide-kategorietako deialdien oinarriak aztertzea.
10. Gai-zerrendetan berdintasun-edukiak sartzea, bai orokorrak, bai berariazkoak eta sartzen den plazaren lan-eremuarekin lotutakoak.
11. Hala badagokio, hautaketa-epaimahaietan emakumeen eta gizonen berdintasunean aditua den pertsona bat sartzea, eta, betiere, berdintasun-teknikariak hautatzeko epaimahaietan.



## 4. ARDATZA.- HORNIDURA ETA KARRERA

### 1) HELBURU OROKORRA

Lanpostuak betetzeko hornidura-prozesuetan emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzea.



### 2) BERARIAZKO HELBURUAK

1. Karrera profesionalean zeharkako diskriminazioak saihesteko mekanismoak ezartzea.
2. Emakumeen eta gizonen potentziala bera dela onartzea eta lanbide-karreraren garapena erraztea.
3. Karrera profesionalean zeharkako diskriminazioak saihesteko mekanismoak ezartzea.
4. Horniduran emakumeen eta gizonen tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzea, irizpide objektibo, kuantifikagarri, publiko eta gardenetan oinarrituta.
5. Ekintzen bidez merezimendu-lehiaketan deialdietan lanpostuetan parekotasuna lortzea.

### 3) NEURRIAK

1. Lanpostuak hornitzeko lehiaketan deialdietan beti jasoko da berdinketa hausteko emakumeen aldeko klausula bat, baldin eta arlo horretan ordezkaritza txikia badute.
2. Lanpostuak hornitzeko prozesuetan lanpostuak atxikitze behin betiko zerrenda argitaratzen duten ebazpenek barne-azterketa bat izango dute, eta bertan, gutxienez, zenbaki eta ehunekoen zerrenda bat jasoko da, sexuaren arabera banatuta, parte hartzeko eskaera egin zuten pertsonen, prozesuan onartutakoen eta behin betiko atxikitakoen artean.
3. Lanpostuak baloratzeko batzordeen osaera emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioaren araberakoa izango da, baldin eta horrek ez baditu kideen profesionaltasun- eta espezializazio-printzipioak urratzen.



### 3) NEURRIAK

4. Lanpostuak hornitzeko lehiaketetan, deitutako lanpostu-tipologia guztien sexuaren araberako proportzioa aztertuko da tipologia bereko titularrei dagokienez.
5. Horiek baloratzeko hornidura-lehiaketetan berariaz sartuko dira berdintasunari buruzko prestakuntza-ikastaroak, hala nola, hizkera ez-sexistari, aukera-berdintasunari, genero-indarkeriari eta genero-identitateari buruzkoak.
6. Lanposturako praktikaldia arautzen duten hautaketa-prozesuetan, kontuan hartuko da amatasun-edo aitatasun-lizentziagatik, jaiotzagatiko baimenagatik eta adingabea zaintzeagatik gertatzen diren absentziak konpentsatu egingo direla, hain zuzen ere praktikaldia egoera horretan egon den denbora berean luzatuz.



## 4. ARDATZA.- HORNIDURA ETA KARRERA

### 3) NEURRIAK

7. Lanpostuak hornitzeko lehiaketetan, aukera-berdintasunean eragin negatiboak gertatzea saihesteko ahalegina egingo da, hala nola hautagaia eszedentzian, lanaldi-murrizketan edo kontziliazioarekin lotutako beste baimen batzuetan egon den denbora haztatzea.
8. Lanpostuak hornitzeko oinarrietan beharrezko bermeak ezarriko dira genero-indarkeriaren biktimen karrera profesionalean biktimaren mugikortasunarekin lotutako faktoreek edo egoera horietatik eratorritako lizentzia, absentzia edo baimenek eraginik izan ez dezaten.



## 5. ARDATZA.- LANEKO PREBENTZIOA ETA OSASUNA

### 1) HELBURU OROKORRA

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa bermatzea lan-  
osasunaren eremuan.



## 5. ARDATZA.- LANEKO PREBENTZIOA ETA OSASUNA

### 2) BERARIAZKO HELBURUAK

Genero-ikuspegia sartzea lan-osasunaren eta lan-arriskuen prebentzioaren eremuan



## 5. ARDATZA.- LANEKO PREBENTZIOA ETA OSASUNA

### 3) NEURRIAK

1. Sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko prebentzio- eta jarduera-protokoloa aldi berean berrikustea eta eguneratzea.
2. Bizkaiko Foru Aldundian indarkeria matxista desagerrarazteko prebentzio-, jarduketa-, jarraipen- eta ebaluazio-neurriak hartzea. Ondore horretarako, Atarilekun protokoloari buruzko oroigarri bat sartzea eta gida errazean sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako prebentzio- eta jarduera-protokoloa aktibatzeke jarraitu beharreko urratsak zehaztea.
3. Lan-baldintzetan eta segurtasuna, higieena, ergonomia eta psikosoziologiari lotuta dauden laneko arriskuekiko esposizioan gerta daitezkeen genero-desberdintasunak aztertzea, prebentzio-mekanismoak ezarriz.
4. Emakumezko foru langileen desberdintasun biologikoen eta bestelako diskriminazio-faktoreek euren lan-baldintzetan, osasunean eta arrisku psikosozialetan duten eragina aztertzea, eta horiei aurre egiteko neurriak sustatzea.



## 5. ARDATZA.- LANEKO PREBENTZIOA ETA OSASUNA

### 3) NEURRIAK

5. Lan-eremuan sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren prebentzioaren arloko prestakuntza ematea delegatuei.
6. Haurdunaldiaren kasuan arriskuak prebenitzeko neurrien berri ematea.
7. Metodo eta sistema diagnostikoetan erikortasun diferentziala kontuan hartzea.
8. Sailak sentsibilizatzea eta sustatzea, NBEak aukeratzekoan bi aldagaiak kontuan hartzea.
9. Prebentzio zerbitzuaren langileen prestakuntza, indarkeria matxistako egoerak detektatzeko eta zer programa eta baliabidetara bidera daitezkeen aztertzeke.



## 6. ARDATZA.- INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

### 1) HELBURU OROKORRA

Lan-ingurune materialean emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa bermatzea.



## 6. ARDATZA.- INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

### 2) BERARIAZKO HELBURUAK

Lan-espazioak eta -ekipamenduak diseinatzean zeharka genero-ikuspegia kontuan hartzen laguntzea.



## 6. ARDATZA.- INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

### 3) NEURRIAK

1. Langune eta zerbitzu komunak diseinatzea, emakumeek zein gizonek bete beharko dituztela kontuan hartuta.
2. Uniformeak erabiltzea beharrezkoa den sektoreetan, uniforme horiek emakumeen eta gizonen ezaugarri morfologikoetara egokitzea, muturreko pertzentilen barruan dauden pertsonak kontuan hartuta.
3. Emakumeentzako segurtasunik gabeko puntu eta sareak ezabatzea eta indarkeria matxistarik gabeko bizitza bermatuko duten espazioak eta ekipamenduak eraikitzea.
4. Lantokietako aldagelen eta komunen kokapena, banaketa eta tipologia berrikustea.
5. Pixkanaka dauden lan-espazioak berrikustea eta beharrezko egokitzapenen azterketa egitea, haurdun dauden emakumeentzako atsedenukuak eta edoskitze naturalerako edo esnea ateratzeko lekuak gaitzearen ondoreetarako.
- 6.- Era berean, egiten diren lan-instalazio berrietan espazio horiek prestatzea.



## 7. ARDATZA.- KONTZILIAZIOA

### 1) HELBURU OROKORRA

Eremu publiko eta personaleko harremanen eraldaketa bultzatzea, eta, horretarako, familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egitea sustatzea.



### 2) BERARIAZKO HELBURUAK

1. Norberaren bizitza, lana eta familia uztartzea zailtzen duten alderdiak/egoerak hautematea.
2. Emakumeen eta gizonen bizitza pertsonala, lana eta familia bateratzeko aukera emango duten neurriak diseinatzea eta ezartzea bultzatzea



### 3) NEURRIAK

1. Norberaren bizitza, familia eta lana uztartzearekin lotutako edozein eskubide baliatzen duten pertsonen sustapen-prozesuetara, prestakuntza-jardueretara eta beren lanpostuei lotutako beste edozein aukeratarara baldintza berdinetan iritsi ahal izatea bermatzea.
2. Ordutegi-malgutasuna bultzatzea, kontziliazioa errazteko eta erantzunkidetasuna sustatzeko.
3. Telelana egin dezaketen lanpostu-zerrendako lanpostuei, telelanerako baimendutakoei eta horien barruan eskatutako kontziliazio-neurriei buruzko azterketa egitea, sexuaren arabera bereizita.
4. "BFAn norberaren bizitza, familia eta lana uztartzeko gida" bat egitea, langileek eta giza baliabideen kudeatzaileek eskubideei, baimenei eta malgutze-neurriei buruz duten informazioa hobetzeko.

### 3) NEURRIAK

5. Langileen arloan lanpostuak betetzen dituzten pertsona guztiek berariazko ikastaroak egin beharko dituzte aukera-berdintasunari eta genero-ikuspegia aplikatzeari buruz.
6. Lan-poltsan dauden eta amatasun-lizentzia duten langileek berehala lanpostura itzultzeko eskatu ahal izango dute, dagozkien baimen-eskubideak mantenduz.
7. Guraso bakarreko kasuetan desberdintasun-egoerak antzemango dituzten neurriak sustatzea eta bultzatzea.
8. Galdetegi bat egitea indarrean dauden kontziliazio- eta erantzunkidetasun-neurrien gogobetetze-maila ezagutzeko.

## 8. ARDATZA.- ERANTZUKIDETASUNA

### 1) HELBURU OROKORRA

Gizonen erantzukidetasuna sustatzea zaintzan eta bizitza bateragarri egitean.



### 2) BERARIAZKO HELBURUAK

1. Sentsibilizazio-, prestakuntza-, kontziliazio- eta malgutasun-neurriak sartzea bultzatzea, lana, norberaren bizitza eta familia-bizitza uztartzeko.
2. Hartutako neurriak aztertu eta jarraipena egitea ahalbidetuko duten sistemak bultzatzea.
3. Emakumeek eta gizonek kontziliazioa izateko eta denboraren erabileran eta etxeko eta familiako lanen banaketan dauden aldeak murrizteko neurriak diseinatu eta ezar daitezzen sustatzea, arlo honetan dauden aldeak murriztuz.

### 3) NEURRIAK

1. Sentsibilizazio-kanpainak abiaraztea, familia-erantzukizunak berdintasunez banatzeko eta kontziliazio-neurriak hartzen dituztenak errespetatzeko.
2. Aitatasun- eta amatasun-baimenek iraupen bera izango dutela bermatzea.
3. Langile guztiei zuzendutako prestakuntza-, informazio- edo sentsibilizazio-ekintzak sustatzea kontziliazioaren eta erantzukidetasunaren garrantziari buruz, gizonen artean kontziliazio-eskubideen erabilera erantzukidea sustatzeko helburuarekin.
4. Orduak errekuperatzeko aukera ematea ordutegi-kontrolako araudian ezarritako baino bilera gehiagotara joan behar izanez gero irakasleekin.
5. Lanposturako eta zeharkako prestakuntza-ikastaro guztiak lanorduetan egitea sustatzea.

### 3) NEURRIAK

7. Eszedentzia-egoeran, kontziliazio-baimen luzeetan, amatasunean, edoskitzaroko aitatasunetan eta abarretan dauden langileen zerrenda egitea eta indarrean izatea, langile horiei guztiei aldiari aldiari prestakuntza-planaren eta lanpostuak betetzeko lehiaketan berri ematea ahalbidetuko duena.

8. Eszedentzia-egoeran, kontziliazio-baimen luzeetan, amatasunean, edoskitzaroko aitatasunetan eta abarretan dauden langileen zerrenda egitea eta indarrean izatea, langile horiei guztiei aldiari aldiari prestakuntza-planaren eta lanpostuak betetzeko lehiaketan berri ematea ahalbidetuko duena.

9. Norberaren bizitza, familia eta lana uztartzeko lizentziei buruzko datuak, motaren eta generoaren arabera, biltzea eta aztertzea.



# NEURRIAK OPERATIBIZATUZ: ADIERAZLEAK, KRONOGRAMA ETA ARDURADUNAK



**HELBURU OROKORRA:** Berdintasunezko erakundea sortzea, non eskubideak eta betebeharrak berdinak izango diren gizonentzat eta emakumeentzat, eta hori eragozten duten oztopoak kentzea.

## BERARIAZKO HELBURUAK

- 1) Berdintasunezko antolaketa sortzea.
- 2) Antolamendu-erantzukidetasuna.
- 3) Sexuaren arabera eskubideetan eta betebeharretan aldeak sortzen dituzten diskriminazioen oinarriak ezabatzea.
- 4) Bi sexuen lan-premien asebetetasun ekitatiboa

NEURRIA	URTEA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA	SAILA
1. Bizkaiko Foru Aldundiaren egiturak, kudeatzeko moduak eta koordinazioa berrikustea.	2024-2025	Emakumeek betetako lanpostuen kopurua, urteko, horien ordezkartza % 40 baino txikiagoa den lanpostu-kategorietan	Zerbitzu guztiak	Sail guztiak
2. Estatistika egokiak eta eguneratuak egitea, administrazioaren kidego, eskala, maila eta kategorien % 40 baino gutxiago hautematea ahalbidetzeko, eta erreferentzia-eremua zehazteko irizpideak ezartzea, % 40 kalkulatzeko.	2024	Estatistika kopurua	Funtzio Publikoko Zuzendariorde eta Zerbitzu guztiak	Sail guztiak
3. Politikarien eta zuzendarien berdintasunaren arloko prestakuntza.	2024-2025	Ikastaro-kopurua	Funtzio Publikoko Zuzendariorde eta Berdintasunerako Zuzendaritza	Sail guztiak
4. Parte hartzeko eta ordezkatzeko kide anitzeko organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzea	2024	Ordezkaritza orekatua duten organoen kopurua	Zerbitzu guztiak	Sail guztiak
5. ATARILEKUn gune bat jarriko da langile guztiak Berdintasunerako Barne Planaren inguruko iradokizunak egin ditzaten.	2024-2025	Espazioa	Funtzio Publikoko Zuzendariorde eta Zerbitzu guztiak	Sail guztiak

## I. ARDATZA – GOBERNANTZA II

**HELBURU OROKORRA:** Berdintasunezko antolaketa bat sortzea, non eskubideak eta betebeharrak berdinak izango diren gizonentzat eta emakumeentzat, hori eragozten duten oztopoak kenduz

**HELBURU ESPEZIFIKOAK:**

- 1)Berdintasunezko antolaketa bat sortzea
- 2)Antolamendu-erantzukidetasuna.
- 3)Sexuaren arabera eskubideetan eta betebeharretan desberdintasunak sortzen dituzten diskriminazioak oinarritik ezabatzea.
- 4)Emakumeen eta gizonen lan-premiak asetzea sustatzea.

NEURRIA	URTEA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA	SAILA
6. Aldundiko kide anitzeko organo egonkorren bileren ordutegia zehaztea	2024	Agindua betetzen duten organoen kopurua	Zerbitzu guztiak	Sail guztiak
7. 7. Harrera-eskuliburuetan atal bat sartzea, lan-eremuan sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-askatasunaren aurkako beste jokabide batzuk prebenitzeko eta horiei aurre egiteko protokoloen edukiari buruz.	2024-2025	Eskuliburu kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza Sailtako ZZ00	Sail guztiak
8. Berdintasunezko hizkuntza duten lanpostuen eta plazen izendapenak berrikustea eta genero-joerak ezabatzea	2024	Berrikusitako lanpostuen kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	Sail guztiak
9. Sexuaren aldagaia gauzatzen duten inkestetan, estatistiketan, azterlanetan eta datu-bilketetan parte hartzea, desberdintasunei buruzko ezagutza hobetzea ahalbidetuko duten adierazleak aplikatuz.	2024-2025	Inkesten eta azterlanen kopurua	Sailtako ZZ00 Zerbitzu guztiak	Sail guztiak



## II. ARDATZA- INDARKERIA MATXISTA

**HELBURU OROKORRA:** Indarkeria matxistari aurre egitea, detekzio goiztiarrean eta babes integralean lan eginez kasu horietan

**HELBURU ESPEZIFIKOAK:**

- 1)Instituzioan indarkeria matxistaren kasuak ezabatzea eta indarkeria matxistaren aurkako kontzientziazioa.
- 2)Detekzio goiztiarra eta indarkeria matxistaren aurkako prebentzio-neurriak hartzea.
- 3)Indarkeria matxista mota guztien irismenari eta eraginari buruzko sentsibilizazioa eta informazioa.
- 4)Indarkeria matxistaren aurrean inplikazioa sustatzea.

NEURRIA	URTEA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA	SAILA
1. Genero-indarkeriaren aurkako babesarekin zerikusia duten neurriak premiaz eta lehentasunez gauzatu behar direla sustatzea, haien eraginkortasuna bermatuko duten prozedura bereziki arinen bidez.	2024	Pertsonen arduradunei informazioa emateko ekintzen kopurua Denboren estatistika	Zerbitzu guztiak	Sail guztiak
2. Indarkeria matxistaren arloko prestakuntza espezializatua, Laneko Arriskuen Prebentziorako eta Osasunerako Zerbitzuko langileak goiz detektatzeko	2024-2025	Ikastaro-kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	HAEH Saila
3. Langileei jakinaraztea zer eskubide dituzten langileek indarkeria matxistari aurre egiten dioten kasuetan, eta komunikazio-kanal bat ezartzea Atarilekun prestatutako postontziaren bidez.	2024	Zabalkunde-ekintzen kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	HAEH Saila
4. Laneko arriskuen prebentzioari buruzko derrigorrezko prestakuntzan sartzeko indarkeria matxistari buruzkoa eta, bereziki, lan-eremuko indarkeria horri buruzkoa.	2024-2025	Número de cursos en los que se ha incluido Número de personas asistentes	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	HAEH Saila
5. Jazarpen-protokoloa berrikustea eta prebentzio- eta jarduera-neurriak hartzea	2024-2025	Berrikuspen kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	HAEH Saila
6. Atarilekun jarduera-gida bat, kanpainaren xehetasuna eta indarkeria-kasuetan jarraitu beharreko prozeduraren azalpena sartzeko.	2024-2025	Inklusio-kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	HAEH Saila
7. Genero-indarkeriarekin lotutako prozedurak berrikustea, lanbide-ibilbide osoan zehar eragindako emakumeentzat konfidentzialtasuna bermatzeko.	2024-2025	Berrikusitako prozeduren kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	HAEH Saila
8. Lanpostua edo lantokia gordetzeko eskubidearen bermea arautzea, genero-indarkeriagatik lantokiz aldatzea edo lanpostuz aldatzea eragiten duen egoerak irauten duen bitartean.	2024	Erregulazioa	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	HAEH Saila

### III. ARDATZA- SARBIDEA I

**HELBURU OROKORRA:** Hautaketa-prozesuetan emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzea

**HELBURU ESPEZIFIKOAK:**

1) Hautaketa-prozesuetan emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa betetzen dela bermatzea eta sustatzea.

2) Enplegu publikoaren plangintzan genero-ikuspegia sartzea.

NEURRIA	URTEA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA	SAILA
1. Emakumeek lanpostu guztiak eta sailkapen-maila guztiak eskura ditzaten sustatzea, segregazio horizontala eta bertikala desagerrarazteko bidean aurrera egiteko.	2024	Emakumeek betetako lanpostuen kopurua, urteko, horien ordezkartza % 40 baino txikiagoa den lanpostu-kategorietan	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	HAEH Saila
2. Estatistika egokiak eta eguneratuak egitea, administrazioaren kidego, eskala, maila eta kategorietan ordezkartza % 40tik beherakoa bada, eta erreferentzia-eremua zehazteko irizpideak ezartzea, % 40 kalkulatzeko.	2024	Estatistika kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza Zerbitzu guztiak	Sail guztiak
3. Klausula bat sartzea, Administrazioaren kidego, eskala, maila eta kategorietan emakumeei lehentasuna emateko, baldin eta trebakuntza-berdintasuna badago, eta kidego, maila, eskala eta kategoria horietan emakumeen ordezkartza % 40tik beherakoa bada. Salbuespena izango da beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituenen, nahiz eta ezaugarriok ez izan sexuagatiko diskriminatzaileak; esaterako, laneratzeko eta lanpostuz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.	2024-2025	Zenbat deialditan aplikatzen den Klausula hori duten deialdien oinarrien kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	Sail guztiak
4. Genero-eraginari buruzko txostenak egitea hautaketa-proba guztietan, emaitzak sistematikoki berrikustea eta, genero-inpaktu negatiboa hautemanen gero, dagozkion neurriak ezartzea.	2024-2025	Número de informes de impacto de género	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	HAEH Saila
5. Aurreikuspenak ezartzea merezimenduen baremoetan, lanbide-esperientziaren ondorioetarako, honako hauek balioesteko: hautagaiak senitartekoak zaintzeko edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia-egoeran emandako denbora, amatasuna eta aitasuna babestea helburu duten lanaldi-murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora, edo bizitza pertsonala, familiara eta lanekoa erantzukidetasunez bateratzen laguntzea, bai eta langile publikoek genero-indarkeriagatiko baimenak baliatu dituzten denbora ere.	2024-2025	Número de previsiones establecidas	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	Sail guztiak



### III. ARDATZA- SARBIDEA II

**HELBURU OROKORRA:** Hautaketa-prozesuetan emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzea

**HELBURU ESPEZIFIKOAK:**

1) Hautaketa-prozesuetan emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa betetzen dela bermatzea eta sustatzea.

2) Enplegu publikoaren plangintzan genero-ikuspegia sartzea.

NEURRIA	URTEA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA	SAILA
6. Deialdi bakarreko sistemaren arabera ariketak edo probak egiten diren prozesuetan, edo hautagaiak agertzea eskatzen duten beste jarduera batzuk egiten diren prozesuetan, behar bezala egiaztatutako haurdunaldi, erditze edo edoskitzaroko egoerak izan daitezke ekitaldia egiteko denbora edo lekuaren inguruabarrak aldatzea justifikatzen duten arrazoiak.	2024-2025	Egindako arreten kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	HAEH Saila
7. Genero-ikuspegia txertatzea deialdi jakin batzuetan eskatzen diren proben diseinuan (bereziki, proba fisikoetan), proba horiek berregokitzeko, diskriminaziorik ezaren printzipioa lortzeko helburuarekin.	2024-2025	Sartze- eta proba-kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	HAEH Saila
8. Behar bezala egiaztatutako haurdunaldi, erditze edo edoskitzaroko egoeren kasuan, egokitzapen materialak behar direnean, egokitzapen horiek Hautaketa eta Lanbide Heziketako Zerbitzuari jakinarazi bazaizkio, zerbitzu horrek dagozkion neurriak hartuko ditu.	2024-2025	Egokitzapen materialen kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	HAEH Saila
9. Emakumeek ordezkaritza txikia duten lanbide-kategorietako deialdien oinarriak aztertzea.	2024-2025	Emakumeen ordezkaritza txikia duten lanbide-kategorien kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	HAEH Saila
10. Gai-zerrendetan berdintasun-edukiak sartzea, bai orokorrak, bai berariazkoak, eta sartzen den plazaren lan-eremuarekin lotutakoak.	2024-2025	Sartutako edukien kopurua	Funtzio Publikoko Zuzendariordetza Berdintasunerako idazkaria	HAEH Saila
11. Incorporación en los tribunales de selección del personal de una persona especialista en igualdad de mujeres y hombres, cuando así sea pertinente, y en todo caso en los tribunales de selección del personal técnico de igualdad.	2024-2025	Epaimahaietan sartu direnen kopurua	Funtzio Publikoko Zuzendariordetza Berdintasunerako idazkaria	HAEH Saila



## IV. ARDATZA- HORNIDURA ETA KARRERA I

**HELBURU OROKORRA:** Lanpostuak betetzeko prozesuetan emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzea.

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- 1)Karrera profesionalean zeharkako diskriminazioak saihesteko mekanismoak ezartzea
- 2)Emakumeen eta gizonen potentzial berdina aitortzea eta lanbide-karreraren garapena erraztea.
- 3)Karrera profesionalean zeharkako diskriminazioak saihesteko mekanismoak ezartzea.
- 4)Hornikuntzan emakumeen eta gizonen tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzea, irizpide objektibo, kuantifikagarri, publiko eta gardenetan oinarrituta.
- 5)Merezimendu-lehiaketan deialdietan, lanpostuen parekotasuna sustatzea ekintzen bidez.

NEURRIA	URTEA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA	SAILA
1. Lanpostuak betetzeko lehiaketan deialdietan beti jasoko da berdinketa hausteko klausula bat, emakumeen aldekoa, baldin eta ordezkari txikia badute.	2024	Zenbat deialditan aplikatzen den Klausula hori duten deialdien oinarrien kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	HAEH Saila
2. Lanpostuak betetzeko prozesuetan lanpostuak atxikitze behin betiko zerrenda argitaratzen duten ebazpenek barne-azterketa bat izango dute, eta bertan, gutxienez, zenbakizko eta ehuneko zerrenda bat jasoko da, sexuaren arabera banatuta, parte hartzeko eskaera egin zuten pertsonen, prozesuan onartutako eta behin betiko atxikitako artean.	2024	Egindako analisien kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	HAEH Saila
3. Lanpostuak baloratzeko batzordeen osaera emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioaren arabera izango da, baldin eta horrek ez baditu kideen profesionaltasun- eta espezializazio-printzipioak urratzen.	2024	Presentzia orekatua duten lanpostuak baloratzeko batzordeen kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza Sail guztiak	HAEH Saila
4. Lanpostuak betetzeko lehiaketetan, deitutako lanpostu-tipologia bakoitzaren sexuaren araberako proportzioa aztertuko da tipologia bereko titularrei dagokienez.	2024-2025	Egindako analisien kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	HAEH Saila
5. Horiek baloratzeko hornidura-lehiaketetan esplizituki sartuko dira emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza-ikastaroak.	2024-2025	Ikastaro horien balorazioa jaso duten lanpostuen kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	HAEH Saila



## IV. ARDATZA- HORNIDURA ETA KARRERA I

**HELBURU DROKORRA:** Lanpostuak betetzeko prozesuetan emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzea.

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- 1)Karrera profesionalean zeharkako diskriminazioak saihesteko mekanismoak ezartzea
- 2)Emakumeen eta gizonen potentzial berdina aitortzea eta lanbide-karreraren garapena erraztea.
- 3)Karrera profesionalean zeharkako diskriminazioak saihesteko mekanismoak ezartzea.
- 4)Hornikuntzan emakumeen eta gizonen tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzea, irizpide objektibo, kuantifikagarri, publiko eta gardenetan oinarrituta.
- 5)Merezimendu-lehiaketan deialdietan, lanpostuen parekotasuna sustatzea ekintzen bidez.

NEURRIA	URTEA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA	SAILA
6. Lanpostuak betetzeko lehiaketetan, aukera-berdintasunean eragin negatiboak izatea saihestuko da, hala nola hautagaia eszedentzian, lanaldi-murrizketan edo kontziliazioarekin lotutako beste baimen batzuetan egon den denbora haztatzea.	2024	Ezarritako aurreikuspenen kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariorde	HAEH Saila
7. Dinarrietan ezarriko dira lanpostuak betetzeko lehiaketak, beharrezkoak diren bermeak, indarkeria matxistaren biktimen karrera profesionalean eraginik izan ez dezaten biktimaren mugikortasunarekin lotutako faktoreek edo egoera horietatik eratorritako lizentzia, absentzia edo baimenek..	2024	Aurreikusten diren deialdien kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariorde	HAEH Saila



# V. ARDATZA - PREBENTZIOA ETA LAN-OSASUNA I

**HELBURU OROKORRA:** Emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa bermatzea lan-osasunaren eremuan

HELBURU ESPEZIFIKOA: Genero-ikuspegia lan-osasunaren eta lan-arriskuen prebentzioaren eremuan sartzea

NEURRIA	URTEA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA	SAILA
1. Sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko prebentzio- eta jarduera-protokoloa aldian behin berrikustea eta eguneratzea.	2024-2025	Egindako berrikuspenen kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza Zerbitzu guztiak	Sail guztiak
2. Bizkaiko Foru Aldundian indarkeria matxista desagerrarazteko prebentzio-, jarduketa-, jarraipen- eta ebaluazio-neurriak hartzea, Atarilekun protokoloari buruzko oroigarri bat sartzea eta gida errazean sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako prebentzio- eta jarduera-protokoloa aktibatzeke jarraitu beharreko urratsak zehaztea.	2024-2025	Prebentzio-, jarduketa-, jarraipen- eta ebaluazio-neurrien kopurua Atarilekun sartutako gogorazpen-kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	Sail guztiak
3. Genero-desberdintasunak aztertzea lan-baldintzetan, laneko arriskuekiko esposizioan (segurtasuna, higieena, ergonomia eta psikosozioiologia), prebentzio-mekanismoak ezarriz.	2024-2025	Egindako analisien kopurua	Zerbitzu guztiak	Sail guztiak
4. Foru langileen desberdintasun biologikoek eta bestelako diskriminazio-faktoreek beren lan-baldintzetan, osasunean eta arrisku psikosozialetan duten eragina aztertzea, eta horiei aurre egiteko neurriak sustatzea.	2024-2025	Egindako analisien kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza Zerbitzu guztiak	Sail guztiak
5. Lan-eremuan eta berdintasunaren arloan sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren arloko prebentzioan prestatzea ordezkariak.	2024-2025	Gaian prestatutako pertsonen kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	HAEH Saila
6. Haurdunaldiaren kasuan, arriskuak prebenitzeko neurrien berri ematea.	2024-2025	Argitalpen kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza Zerbitzu guztiak	Sail guztiak
7. Metodo eta sistema diagnostikoetan erikortasun diferentziala kontuan hartzea.	2024-2025	Azterketen/azterlanen kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	Sail guztiak
8. Sailak sensibilizatzea eta sustatzea, eta bi aldagaiak kontuan hartzea NBEak aukeratzekoan.	2024-2025	Ekintza-kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza Zerbitzu guztiak	HAEH Saila
9. Prebentzio-zerbitzua prestatzea, indarkeria matxistako egoerak detektatzeko eta zer programa eta baliabidetara bidera daitezkeen aztertzeke.	2024-2025	Gaian prestatutako pertsonen kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	HAEH Saila



## VI. ARDATZA: INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

**HELBURU OROKORRA:** Lan-ingurune materialean emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa bermatzea

HELBURU ESPEZIFIKOA: Lan-espazioak eta -ekipamenduak diseinatzean genero-ikuspegia zeharkakotzen laguntzea

NEURRIA	URTEA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA	SAILA
1. Langune eta zerbitzu komunak diseinatzea, emakumeek zein gizonek bete ditzaketen kontuan hartuta.	2024-2025	Lan-espazioak eta zerbitzu komunak osatzen dituzten emakumeen eta gizonen kopurua kontuan hartuta egindako diseinuen kopurua	Zerbitzu Korporatiboetako Zuzendariordetza Zerbitzu guztiak	Sail guztiak
2. Uniformeak emakumeen eta gizonen ezaugarri morfologikoetara egokitzea horiek erabiltzea beharrezkoa den sektoreetan, muturreko ehunekoan barruan dauden pertsonak kontuan hartuta.	2024-2025	Egindako egokitzapenen kopurua Hori jasotzen duten plegu edo klausulen kopurua	Zerbitzu Korporatiboetako Zuzendariordetza Zerbitzu guztiak	Sail guztiak
3. Emakumeentzako segurtasunik gabeko puntu eta sareak ezabatzea eta indarkeria matxistarik gabeko bizitza bermatuko duten espazioak eta ekipamenduak eraikitzea.	2024-2025	Kendutako puntu eta sare ez-seguruen kopurua Eraikitako espazioen eta ekipamendu egokien kopurua	Zerbitzu Korporatiboetako Zuzendariordetza Zerbitzu guztiak	Sail guztiak
4. Lantokietako aldagelen eta komunen kokapena, banaketa eta tipologia berrikustea	2024-2025	Egindako berrikuspenen kopurua	Zerbitzu Korporatiboetako Zuzendariordetza Zerbitzu guztiak	Sail guztiak
5. Dauden lan-espazioak pixkanaka berrikustea eta beharrezko egokitzapenen azterketa egitea, haurdun dauden emakumeentzako atsedenlekuak, edoskitze naturalerako edo esnea ateratzeko.	2024-2025	Gaitutako instalazio berrien kopurua	Zerbitzu Korporatiboetako Zuzendariordetza Zerbitzu guztiak	Sail guztiak
Era berean, egiten diren lan-instalazio berrietan espazio horiek berak prestatzea.		50		



## VII-BATERAGARRITASUNA ARDATZA

**HELBURU OROKORRA:** esparru publikoan eta pertsonalean harremanen eraldaketa bultzatzea, bizitza pertsonala, familiarikoa eta lanekoa uztartzea sustatuz.

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- 1) Norberaren bizitza, lana eta familia bateragarri egitea zailtzen duten alderdiak/egoerak hautematea
- 2) Emakumeen eta gizonen bizitza pertsonala, lana eta familia bateratzeko aukera emango duten neurrien diseinua eta ezarpena bultzatzea.

NEURRIA	URTEA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA	SAILA
1. Norberaren bizitza, familia eta lana uztartzearekin lotutako edozein eskubide baliatzen duten pertsonak sustapen-prozesuetara, prestakuntza-jardueretara eta beren lanpostuei lotutako beste edozein aukeratarata baldintza berdinetan iritsi ahal izatea bermatzea.	2024-2025	Eskubide horiek hartu dituzten pertsonen kopurua, gizonen eta emakumeek bereizita	Zerbitzu Korporatiboetako Zuzendariordetza Zerbitzu guztiak	Sail guztiak
2. Ordu-tegi-malgutasuna bultzatzea, kontziliazioa errazteko eta erantzunkidetasuna sustatzeko.	2024-2025	Sustapen-ekintzen kopurua	Zerbitzu Korporatiboetako Zuzendariordetza Zerbitzu guztiak	Sail guztiak
3. Telelana egin dezaketen lanpostu-zerrendako lanpostuei, telelanerako baimendutakoak eta horien barruan eskatutako kontziliazio-neurriak buruzko azterketa egitea, sexuaren arabera bereizita.	2024-2025	Egindako azterlanen kopurua Eskatutako eta emandako adiskidetze-neurrien kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	Sail guztiak
4. "BFAn norberaren bizitza, familia eta lana uztartzeko gida" egitea, langileek eta giza baliabideen kudeaketak lanaldia malgutzeko eskubideei, baimenei eta neurriak buruz duten informazioa hobetzeko.	2024-2025	Egindako gida	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	Sail guztiak
5. Langileen arloan lanpostuak betetzen dituzten pertsona guztiak berariazko ikastaroak egin beharko dituzte aukera-berdintasunari eta genero-ikuspegia aplikatzeari buruz.	2024-2025	Langileen arloan lanpostuak betetzen dituzten eta ikastaroak egin duten pertsonen kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	Sail guztiak
6. Lan-poltsan dauden eta amatasun-lizentzia duten langileek lanpostura itzultzeko eskatu ahal izango dute, dagozkien baimen-eskubideak mantenduz.	2025	Lan-poltsan amatasunagatik lizentzia duten eta lanean hasteko eskatu duten langileen kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	Sail guztiak
7. Guraso bakarrek kasuetan desberdintasun-egoerak antzemango dituzten neurriak sustatzea eta bultzatzea.	2025	Hartutako neurrien kopurua	Zerbitzu guztiak	Sail guztiak
8. Galdetegi bat egitea, indarrean dauden kontziliazio- eta erantzunkidetasun-neurrien gogobetetze-maila ezagutzeko.	2025	Egindako galdera-sorten kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	Sail guztiak

**HELBURU OROKORRA:** zaintzan eta bitzitza bateragarri egitean gizonen erantzunkidetasuna sustatzea**HELBURU ESPEZIFIKOAK:**

- 1) Sentsibilizazio-, prestakuntza-, kontziliazio- eta malgutasun-neurriak sartzeari bultzatzea, lana, norberaren bitzitza eta familia-bitzitza uztartzeko.
- 2) Hartutako neurriak aztertzea eta jarraipena egitea ahalbidetzen duten sistemak bultzatzea
- 3) Erantzunkidetasuna ahalbidetuko duten neurrien diseinua eta ezarpena bultzatzea, eta denboraren erabileran eta etxeko eta familiako lanen banaketan dauden aldeak murriztea, alde horretatik dauden aldeak murriztuz.

<b>NEURRIA</b>	<b>URTEA</b>	<b>ADIERAZLEAK</b>	<b>ARDURADUNA</b>	<b>SAILA</b>
1. Sentsibilizazio-kanpainak abiaraztea, familia-erantzukizunak berdintasunez banatzeko eta kontziliazio-neurriak hartzen dituztenak errespetatzeko.	2025	Egindako kanpainen kopurua	Funtzio Publikoko Zuzendariordetza Berdintasunerako idazkaria	Sail guztiak
2. Aitatasun- eta amatasun-baimenak iraupen bera izango duela bermatzea.	2024	Emandako aitatasun-baimenen kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	Sail guztiak
3. Langile guztiei zuzendutako prestakuntza-, informazio- edo sentsibilizazio-ekintzak sustatzea kontziliazioaren eta erantzukidetasunaren garrantziari buruz, gizonen kontziliazio-eskubideen erabilera erantzukidea sustatzeko helburuarekin.	2024-2025	3. Langile guztiei zuzendutako prestakuntza-, informazio- edo sentsibilizazio-ekintzak sustatzea kontziliazioaren eta erantzukidetasunaren garrantziari buruz, gizonen kontziliazio-eskubideen erabilera erantzukidea sustatzeko helburuarekin.	Funtzio Publikoko Zuzendariordetza Berdintasunerako idazkaria Zerbitzu guztiak	Sail guztiak
4. Orduak berreskuratzeko aukera ematea, ordutegi-kontrolako araudian ezarritako baino bilera gehiagotara joan behar izanez gero irakasleekin..	2024	Jasotako eskaeren kopurua urtean	Funtzio Publikoko zuzendariordetza	Sail guztiak



**HELBURU OROKORRA:** zaintzan eta bizitza bateragarri egitean gizonen erantzunkidetasuna sustatzea

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- 1) Sentsibilizazio-, prestakuntza-, kontziliazio- eta malgutasun-neurriak sartzea bultzatzea, lana, norberaren bizitza eta familia-bizitza uztartzeko.
- 2) Hartutako neurriak aztertzea eta jarraipena egitea ahalbidetzen duten sistemak bultzatzea
- 3) Erantzunkidetasuna ahalbidetuko duten neurrien diseinua eta ezarpena bultzatzea, eta denboraren erabileran eta etxeko eta familiako lanen banaketan dauden aldeak murriztea, alde horretatik dauden aldeak murriztuz.

NEURRIA	URTEA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA	SAILA
5. Lanposturako eta zeharkako prestakuntza-ikastaro guztiak lanorduetan egin daitezen sustatzea.	2024-2025	Ordutegian egindako ikastaroen kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariorde eta Zerbitzu guztiak	Sail guztiak
6. Karrerako prestakuntza bat online arau orokor gisa planifikatzea.	2024-2025	Online egindako karrera-ikastaroen kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariorde eta	Sail guztiak
7. Eszedentzia-egoeran, kontziliazio-baimen luzeetan, amatasun-baimenetan eta edoskitzaroko aitatasun-egoeretan dauden langileen zerrenda egitea eta indarrean mantentzea, aldian-aldian informazioa eman ahal izateko onartzen diren prestakuntza-planari eta lanpostuak betetzeko lehiaketei buruz, bai eta haiei eragiten dieten gaiei buruz ere.	2024-2025	Egoera horietan dauden pertsonen zerrenda	Funtzio Publikoko zuzendariorde eta	Sail guztiak
8. Norberaren bizitza, familia eta lana uztartzeko lizentzia-motei buruzko datuak biltzea, sexuaren arabera bereizita, eta azterketa bat egitea genero-ikuspegitik.	2025	Egindako analisien kopurua	Funtzio Publikoko zuzendariorde eta	Sail guztiak